



## BANAKAKO ERREKLAMAZIOAK - GIDA

### Zergatia

Aurrez jakinarazi genizuen moduan, iraileko lansarian, jada murrizketak ezarri dituzte kotizazio oinarriak aldatzearekin batera. Murrizketak, sektoreko langileria osoari eragiten dio: irakasle direnei eta ez direnei, ordainketa eskuordetua dutenei eta ikastetxetik zuzenean kobratzen dutenei ere. Murrizketa hauek Hezkuntza Sailak agindutakoak dira eta geure ugazabek guri ezartzea erabaki dute.

Egoera honen ondorioz ezartzen zaigun diru kopuru hori galdutzat emateko prest ez bagaude, enpresa bakoitzean banakako erreklamazioak bideratzera behartuak aurkitzen gara. Honek, ez du ikastetxeetan tira-birak sortzeko iturri izan behar, ezta kontzientzia arazoak sortzeko bidea ere. Dagokiguna eskatzen dihardugu, indarrean dagoen Hitzarmena (2009koa) errespeta dezaten eskatzen ari gara, eta ez besterik. Gurea betetzen dugu eta besteek ere haiena bete dezaten nahi dugu. Patronalak hau ulertu behar du eta bi alderdiok tribunalen eraginpean geratzen garela ere.

### Zer da banakako erreklamazioa?

Enpresak duen ordainketa konpromisoa betetzeko eskaera da. Lehenik eta behin, argi izan behar duzuna zera da: diru erreklamazio bat, 4 eta 7 hilabeteko iraupena izan dezakeen legezko prozesu luze batetan bilaka daiteke; eta helegitea aurkeztera iristen bada, bi urtetara ere iritsi daiteke. Hori dela eta, lehenbailehen prozesua abian jartzea komeni da eta ezartzen den epe barnean erreklamazio guztiak jasotzea.

Diru-erreklamazioekin batera, STEE-EILASek, gatazka kolektiboaren ildo jarraituz, hitzarmena ez betetzeagatik patronala salatuko du. Beste sindikatu batzuek ere antzerako neurriak iragarri dituzte. Salaketa honek, diru-erreklamazio guztien legezko prozedura geldiaraziko du, eta irabaziko balitz, erreklamazio guztiak batera eta automatikoki irabaztea ekarriko luke. Gatazka galduko balitz ordea, erreklamazio guztiak galdutzat emango dira.

Bestalde, garrantzitsua da ondokoa uler dezazun: zor dizkizun kopuruak enpresari erreklamatzeko ez dizkizun neurrian, oso zaila dela berauek kobratzea. Dagokizun erreklamazioa aurkezten ez baduzu, sektorean aurkezten den gatazka kolektiboaren ebazpena sindikatuen aldekoa izanik ere, zure enpresaren borondatearen menpe geratuko zinateke dirua eskuratzeko garaian. Dena den, legezko edozein prozesutan bezala, galtzeko arriskua dago eta horrek zor digutena ez kobratzea esan nahi du.

Beharrezkoak diren datuak aurkeztu ostean eta zerbitzu juridikoen esku ipini ondoren, ez duzu zertan aurkeztu prozesuan. Banakako erreklamazioak, adiskidetzeko egintza gauzatu ondoren, auzi-eskaera bilakatzen direnez, zure interesak babesteko dituen abokatu batek bideratu behar ditu. Sindikatu baten eskutik egitea derrigorrezkoa ez bada ere, STEE-EILASen zerbitzu juridikoak erabiliz burutzeko aukera eskaintzen dizugu.

#### ARABA

Eulogio Serdán, 5 (behea)  
Tf: 945 14 11 04 Faxa: 945 14 43 02  
araba@stee-eilas.org

#### BIZKAIA

Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)  
Tf: 944 10 02 98 Faxa: 7944 10 13 60  
bizkaia@stee-eilas.org

#### GIPUZKOA

Baso-biki, 30-34 (atzealdea)  
Tf: 943 46 60 00 Faxa: 943 45 36 27  
gipuzkoa@stee-eilas.org

#### NAFARROA

Descalzos, 72 (behea)  
Tf: 948 21 23 55 Fax: 948 22 97 90  
nafarroa@stee-eilas.org



Kopuruen eskaera banakako erreklamazioen bidez gauzatzen bada ere, STEE-EILASen izenean, ikastetxe bakoitzeko edo langileen taldekatze bakoitzeko espediente bakarra aurkez liteke. Ikastetxe batetako langileria txosten desberdinetan taldeka daiteke sindikatu desberdinen eskutik. Hasierako erreklamazioak, beranduagoko kopuruekin (atzetik datozen nominetako kopuruak) osatzeko aukera ere izango da epaiketa burutu aurretik. Hau da erreklamazioak lehenbailehen aurkezteko arrazoia, hain zuzen ere.

## Zer eskatzen dizugu?

STEE-EILASeko ordezkaria baldin bazara, kanpaina hau arrakastatsua izan dadin laguntza eskatzen dizugu. Horretarako, behar duzun materialez gain sindikatuko liberatu guztien laguntza izango duzu. Lehenengo eta behin zentroan bilera bat burutu beharko duzu banakako erreklamazioa egin nahi duen oro informatuta egon dadin. STEE-EILASekin erreklamazioa egin nahi dutenen artean dagoen material guztia aurkeztu beharko duzu ezartzen diren epeak errespetatuz. Ondoren, zure lankideei esku bat bota beharko diezu eskatzen zaizkien datuak osatzen lagunduz, gainbegiratzuz eta zuzenduz, hala badagokio.

Zehazkiago esateko:

- Nominan agertzen den kopurua eta kobratutako abonua bat datozela egiaztatu behar da.
- Murrizketarik balego hau egin beharko litzateke:
  - a) Ondo ordaindutako azken nominaren fotokopia jaso eta gaizki ordaindutako nomina guztien fotokopiak ere.
  - b) Sindikatutik bidaltzen dizkizugun inprimakiak bete: *Informazio pertsonala eta STEE-EILASeko zerbitzu juridikoak erabiltzeko protokoloa*. Lehenengoa, erreklamazioa tramitatzeke behar ditugun oinarrizko datuak jasotzeko beharrezkoa da; eta bigarrenak, erreklamatailearen sinadura izango du eta zerbitzu juridikoei bere izenean jarduteko boterea emango die. Azken honek bi eredu ditu: bata afiliatu direnentzat eta bestea, afiliatuak ez direnentzat. Bakoitzetik kopia bana emango dizugu eta afiliazio-orri bat, norbaitek afiliatu nahi izango balu erabiltzeko.

Sindikatu honetan afiliatuta bazaude eta zure zentroan ez badago STEE-EILASeko ordezkari sindikalik, jar zaitez sindikatuarekin kontaktuan erreklamazioa egiten lagun zaitzagun. Halaber, zure zentroan, espedienteen jasotzea dinamiza zenezake, nahi izanez gero.

## Zenbat balio du?

STEE-EILASen eskutik erreklamazioa bideratzen duen pertsona bertako afiliatua izanez gero, sindikatuak eskainitako zerbitzu juridikoak doakoak dira. Afiliatu ez dinenentzat eta STEE-EILASen bidez erreklamazioa burutu nahi dutenen pertsonentzat, zerbitzuaren kostua 45 €koa izango da eta irabazitakoaren %10aren ordainketa konpromisoa adierazten duen kontratu bat sinatuko da. STEE-EILASeko ordezkaria arduratuko da ikastetxe bakoitzeko dirua jasotzeaz eta sindikatura bideratzeaz.

### ARABA

Eulogio Serdán, 5 (behea)  
Tf: 945 14 11 04 Faxa: 945 14 43 02  
araba@stee-eilas.org

### BIZKAIA

Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)  
Tf: 944 10 02 98 Faxa: 7944 10 13 60  
bizkaia@stee-eilas.org

### GIPUZKOA

Baso-bxiki, 30-34 (atzealdea)  
Tf: 943 46 60 00 Faxa: 943 45 36 27  
gipuzkoa@stee-eilas.org

### NAFARROA

Descalzos, 72 (behea)  
Tf: 948 21 23 55 Fax: 948 22 97 90  
nafarroa@stee-eilas.org